

HAURREN UDA AISIALDIA

Kaixo familia!

Irurako haur, nerabe eta gazte zerbitzuko helburua da bertako haurrei haurtzaroaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea, eskaintza iraunkorra eskainiz. Horregatik, 2020-2021 ikasturteari amaiera emateko, 2010-2018 urte bitartean jaiotakoek eskaini nahi diegun **Uda Aisialdia udaleku irekiak** aurkeztera gatoz.

Jakinarazi nahi dizuegu udalak udaleku irekiak antolatzen jarraituko duela, baina une honetako aisialdi zerbitzuetako neurriek ezinezko egiten dutela Uda Aisialdia zerbitzua martxan jartzea. Beraz, **ezin dugu ziurtatu uztailean zerbitzu hau aurrera eramaterik izango dugun.**

2020ko udaleku irekiak gauzatu zirenetik ia urtebete igaro da, baina une honetako egoera epidemiologikoa ez da hobetu; horregatik, aurtengo **Uda Aisialdia** lehengo urtekoaren antzerakoa izango delakoan gaude, baina matrikulazioan aldaketa batzuk egongo dira.

Zerbitzua ekainaren 28tik uztailearen 23ra izango da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara (**zaintza EZ da egongo**). Aurten, aldiz, **Uda Aisialdiako bi txanda egongo dira**. Txanda bakoitzaren iraupena bi astekoa izango da eta, nahi izanez gero, bi txandetako aurrematrikula egin daiteke. Behin aurrematrikula eginda, zerbitzuaz gozatuko duten haurren kopurua jakingo da.

Espazio itxiekin ditugun mugen ondorioz, **gerta liteke zerbitzua egunero jaso beharrean, txandakako egun zehatz batzuetan soilik jasotzea**. Hau jakitean, behin betiko zerbitzua zein izango den jakinaraziko zaie aurrematrikula egin dutenei, eta zerbitzuan baja emateko aukera izango dute.

Txandak: bakoitzak komeni zaion txandan eman dezake izena:	<ol style="list-style-type: none">1. txanda: EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 9RA.2. txanda: UZTAILAREN 12TIK 23RA.
Ordutegia:	Goizeko 10:00etatik 13:00etara (zaintza ez da egongo).
Parte-hartzaileak:	2010-2018 urteen artean jaiotakoak (biak barne).
Prezioak:	<u>Txanda bakarra:</u> Iruran erroldatuta daudenek edo Irurako ikastolan matrikulatutakoek 41,15 €, besteek 88 € <u>Bi txandak:</u> Iruran erroldatuta daudenek edo Irurako ikastolan matrikulatutakoek 71,50 €, besteek 176 €
Aurrematrikula:	Apirilaren 23tik 30era (biak barne), www.irura.eus webgunetik Online, sinadura elektronikoko bidez, edo matrikulazio orria deskargatu eta kultura bulegoan entregatuz.
Behin-behineko taldekatzea:	Maiatzaren 3tik 11ra bitartean, taldekatzeak egin eta zerbitzuaren behin-behineko eskaintza jakinaraziko da.
Baja emateko epea:	Maiatzaren 12tik 18ra, zerbitzurako aurrematrikula egin dutenek baja emateko aukera izango dute www.irura.eus webgunetik Online, sinadura elektronikoko

	bidez, edo baja eskaera orria deskargatu eta kultura bulegoan entregatuz
Behin betiko taldekatzea:	Maiatzaren 19tik 21era, behin betiko taldekatzeak egingo dira.
Lekua dagoen taldeetan matrikulazioa egiteko aukera:	Behin betiko taldeak egin ondoren, Irurako webgune eta App bidez jakinaraziko da zein taldeetan dagoen lekua, eta maiatzaren 24tik 28ra zabalduko da talde horietan matrikulazioa egiteko aukera (matrikulatzeko sistema aurrematrikulatzeko sistema bera izango da).

Familia ugariaren agiria aurkezten dutenei %10eko deskontua aplikatuko zaie. Deskontu honi, bigarren seme alabaren izen-emateagatik, beste %10eko deskontua aplikatuko zaio, eta hiru seme-alabek izena emango balute, %15koa.

Familia ugaria ez izan arren, seme-alaba bat baino gehiagok izena eman badute, deskontu bera aplikatuko da (bigarrenarengatik %10). **BETI ERE HAURREN UDA AISIALDIAN IZENA EMATEN BADUTE ETA EZ GAZTELEKUKOEN UDA AISIALDIAN.** Deskontuak Iruran errolatuta daudenek soilik izango dituzte.

Kobraketa udalak egingo du zuek baimendutako kontu korrontetik.

Bestalde, **inork ordaintzeko arazoak balitu**, gizarte zerbitzuetako hobari-soziala eskuratzeko aukera izango luke matrikulazio orrian eskaera eginaz. Eskaera onartua izanez gero, kuotaren %10 ordainduko luke.

Aurten ere, aurrematrikula www.irura.eus webgunearen bidez egitea gomendatzen dizuegu. Horretarako sinadura elektronikoa beharko duzue, eta ez duzuenok BakQ-a eska dezakezue udaletxeko harreran (herritarrentzako identifikazio elektronikoa). Horrela egin nahi ez baduzue, www.irura.eus webgunean aurkituko duzuen aurrematrikularako orria bete eta kultura bulegoan entregatu behar duzue. Kontuan izan aurrematrikularako epea errespetatzea ezinbestekoa dela kalitatezko zerbitzua mantentzeko.

Kontziente gara zerbitzu honek herriko haur eta nerabeentzat duen balioaz. Horregatik, udalak ahal dituen baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak jartzen ditu beraien eskura. Hemen dituzue 2020ko *Uda Aisialdia* udaleku irekietako datu batzuk:

Parte-hartzaile kopurua:	HAURRAK: 99	NERABEAK: 40
Udalak, goiza pasarako kontratatutako begirale kopurua:	BEGIRALEAK: 18	
Diru-sarrerak eta gastuak:	SARRERAK: 6259.65€	GASTUAK: 26583.88€

OHARRA: Matrikulazioaren inguruko berriak jaso nahi badituzue Irurako Udaleko APP-a deskargatzera gonbidatzen zaituztegu.